

NI ETA NIRE BIZIKLETA

•Zuek bai jakin!: Elgarresta ahizpak •Elkarrizketa: Andoni Berriotxo

•Izerdi patsetan: Eire-Bankoa xake txapelketa •Boteprontoan: Alex Albisua

Herri Aldizkaria Otamotz

2011ko

martxoa

165. alea



ZUMARRAGA ETA URRETXUK AURRERA EGTEKO

Iñigo Peñagarikano
Zumarragako alkategaia



Itziar Agirre
Urretxuko alkategaia

www.inigopenagarikano.com

www.itziaragirre.com



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Goierriko Hedabideak. Labeaga 12, Urretxu. 943 72 34 08 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrjeta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Etxeraino **Publizitatea:** Iker - 647 319 775 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Ni eta nire bizikleta
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Bizikletan ibiltzen al zara?
Euskal Herriko Itzulia ikusteko asmorik ba al duzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**
Carlos Mediavilla
- 18 Zuek bai jakin!**
Elgarresta ahizpak
- 22 Elkarrizketa**
Andoni Berriotxo
- 25 Izerdi patsetan**
Eire-Bankoa xake txapelketa
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Argazki zaharra**
- 30 Boteprontoan**
Alex Albisua



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Ni eta nire bizikleta

Aurtengo Euskal Herriko Itzulia Zumarragan hasiko da. Bizikleta apirileko protagonista nagusia izango da, baina herritar askorentzat urte guztian da oso garrantzitsua tramankulu hau. Are gehiago, modan dago bi herriotan: gero eta gehiago dira eguneroko bizitzan erabiltzen dutenak eta Goierri kirol elkartearen zikloturista taldea Euskal Herriko indartsuenetakoa da. Pedalei eragitea atsegin duten sei lagunekin hitz egin dugu tresna ekologiko eta osasuntsu honekin duten harremanari buruz.



Joxe Manuel Bereziartua: “Bizikletan ibiltzen ikastea lortu nuenean munduko errege sentitu nintzen”

Urretxu eta Zumarragan txirrindulari ezagunik bada, hori Joxe Manuel Bereziartua *Bere* da. Ia toki guztietara bizikletan joaten da. Bera eta bere bizikleta ia banaezinak dira. Baina ez da beti hala izan: Bere herrena da, umetan inork ez zion bizikletan ibiltzen ikastera animatu eta 30 urterekin ikasi zuen. “Umetan inor ez zen niri irakasten saiatu, baina mediku batek bizikletan ibiltzeak mesede egingo zidala esan zidan eta ikastea erabaki nuen. Garai hartan Azkoitiko saihezbidea egiten ari ziren eta bertan ikasi nuen. Behin baino gehiagotan erori nintzen, baina burugogorra naiz eta aurrera egin nuen”.

Sekulako poza hartu zuen, noski. “Besteak bizikletarekin ikusteak inbidia ematen zidan, baina etxean ez genuen erosteko dirurik, herrena naiz... Garai hartan bizikleta bat erostea ez zen egun bezain erraza eta gainera elbarritasuna genuenok egun baino bazterketa handiagoa jasaten genuen. Ikastea lortu nuenean munduko errege sentitu nintzen. Gainera, mendian ibiltzea asko gustatzen zitzaidan, baina nekatu egiten nintzen. Bizikletan, berriz, minak eta ezina txikiagoak dira eta distantzia handiagoak osatu ditzaket”.

Bereziartuak denetarako erabiltzen du bizikleta: lanera joateko, turismoa egiteko... “Igartubeitin lan egin nuen garaian, bizikletan joaten nintzen. Joanean Ezkioko aldapa igo behar nuen eta itzuleran Eitzaga, baina ia egunero joaten

nintzen. Neguan eskularruak, pasamontañasa eta bi kamiseta jartzen nituen arren, sekulako hotza pasatzen nuen”.

Autoa gehiegi erabiltzen dela eta bizikletak hainbat abantaila dituela uste du. “Kirola egiteko eta, bidez batez, lanera joateko balio du. Sekula ez naiz gidatzeko baimena ateratzen saiatu. Egia esan, ez dut uste auto bat eramateko balio dudarik: oso despistatua naiz.

“Urretxuko

industrialdera

autoan joaten direnek

tontakeria galanta

egiten dute”

Lanera besteen autoan joateko aukera nuen, baina bizikletak independentzia ematen du”.

Esan bezala, lanera joateko ez ezik, turismoa egiteko ere erabiltzen du bizikleta. “Iparraldean sekulako buelta egin nuen: kostaldetik Ori azpiraino joan nintzen eta handik Orreagara. Basapiztien moduan eman nituen hiruzpalau egun. Asturias aldean ere ibili nintzen”. Bizikleta gainean pasatako egunik okerrera Iparraldean izan zen. “Egun batean sekulako beroa egin zuen eta ez nuen erre nahi: ez nituen beso luzeko kamise-

ta eta txandala kendu. Sekulako beroa pasatu nuen. Izerdi batean iritsi nintzen Orreagara eta han jan beharreko guztiak jan nituen. Beste batean Madarixara joaten sekulako izerdiak bota nituen eta gero bi sagardo botila edan nituen. Beldurrez itzuli nintzen etxera. Beste batean gurgila bi aldiz zulatu nuen, inoiz galdu ere egin naiz...”.

Dena den, une gozoak gogorak baino askoz ere gehiago izan dira. “Asturias aldean oso ondo pasatu nuen. Larraitz aldean ere primeran pasatu izan dut. Lizarrustiko bidea eta Villabonatik Andazarratera doazenak ere oso politak dira. Beasainera trenean joaten naiz, hemendik Ormaiztegira bitarteko errepidea itsusia baita”. Bidegorrian ibiltzea ere atsegin du, batez ere Urretxutik Azkoitira.

Jendeak bidegorriak gehiago erabili beharko lituzkeela uste du. “Urretxuko industrialdera autoan joaten direnak tontakeria galanta egiten ari dira. Bidegorritik denbora gutxian eta eroso joan daiteke. Jendea bizikletan ibiltzea sakrifizioa iruditzen zaio, baina oso eroso da. Niri asko eman dit: mendian primeran pasatu dut. Atzo beran Urkiagara joan nintzen, sagar batzuk jan nituen, baserritar batekin hitz egin nuen... Gainera, herriko beste puntara berehala heltzen naiz bizikletari esker. Merezi du garraibide honi aukera gehiago ematea. Europako beste herri batzuetan, eta Donostian bertan, egiten dute”.

Izaro Soraluze: “Poliki eta norberaren maila dutenekin hastea komeni da, gozatzea da kontua”

Izaro Soraluzek 29 urte ditu eta beti izan du bizikleta etxean. Lehen mendikoarekin ibiltzen zen eta duela hiru urte errepidekoa erosi zuen. Kirola egiteko erabiltzen du eta orain bezainbeste sekula ez dela ibili aitortzen du. 2009an Quebrantahuesos martxa ezaguna egin zuen eta urtean 4.000 kilometro pasatxo egiten ditu.

Farmazialaria da, Legazpi kaleko botikan lan egiten du, eta kirola egiteko nahi bezainbeste denbora ez duela dio. “Eguerdietan eta asteburuetan ibiltzen naiz. Astegunetan Atagoiti, Mandubia edo Udanara joaten naiz. Asteburuetan, eramaten nauten tokira”. Esan bezala, martxatan parte hartzeko ohitura du: Covadongakoan, Miguel Indurainen omenezkoan, Quebrantahuesos delakokan eta Goierrik irailean antolatzen duen horretan parte hartu du orain arte.

Lasterketak ikustea ere gustatzen zaio. Tebistan azkeneko kilometroak ikusten ditu eta zuzenean ere ikusi izan ditu. “Iaz Tourrean izan ginen eta oso ondo pasatu genuen. Euskal Herriko itzuliko lehen etapa ere ikusteko asmoa dugu. Antiora joango gara, azkeneko aldapara”. Bezperako martxan parte hartzeko aukerarik ez du. “Larunbatean ezkontza izango dugunez, igandean ez gara bizikletan ibiltzeko moduan izango. Dena den, giroaz gozatuko dugu”.

Ikusten denez, benetako zaletua da. Izan ere, bizikletak asko eman diola uste du. Txirringularitza bititza bezala-



Izaro Soraluze bizikletarekin egin duen bidaietako batean.

koa da: une gozoak eta gogorak eskaintzen ditu. Gogorrei dagokienez, iazko Quebrantahuesos proba gogoratzen du bereziki. “Erretiratu egin behar izan genuen, oso eguraldi txarra egiten baitzuen. Jakan eguraldi ona egiten zuen, baina Frantzia aldera pasatu bezain pronto itzultzea erabaki genuen. Erabaki zuzena hartu genuen, baina barruan amorrua gelditu zitzaigun”.

Une gozoei dagokienez, 2009ko Quebrantahuesos eta Covadongako martxa oroitzen ditu, baina bereziki Pirinioak bakarrik zeharkatu zituenekoa. “Duela hiru urte Ebro ibaia jaitsi nuen, Reinosatik delalara. Gustatu egin zitzaiz-

dan eta hurrengo urtean Hondarribitik Tortosara joatea erabaki nuen: etapak prestatu nituen, hostaletan ostatu hartu nuen eta poliki-poliki... 11 egun behar izan nituen, oker ez banaiz. Anaia eta mutila lanean zeudenez, bakarrik egin nuen. Oso esperientzia ona izan zen. Frantziako mendateak asko gustatu zitzaizkidan: Aubisque, Tourmalet, Aspin, Peyresourde...”.

Askori bere balentria irakurtze hutsa nekagarria egingo zaie, baina Soraluzek bizikletan ibiltzea merezi duela dio. “Poliki eta norberaren maila dutenekin hastea komeni da. Gozatzea da kontua”, amaitu du.

Izaskun Larrañaga: “Ez nuen sekula pentsatuko errepideko bizikleta bat erosten dirua gastatuko nuenik!”

Izaskun Larrañaga Zumarragako Udaleko kultur teknikaria ere umetatik ibiltzen da bizikletan. Hiru anaia-arrebentzat bizikleta bakarra zuten eta auzoan ikasi zuten ibiltzen. Duela urte batzuk spinning egiten hasi zen eta ondoren errepidera salto egin zuen. Urretxu eta Zumarragako beste emakume askok bezala, Iñaki Urdangarin Goierri kirol elkarteko zikloturismo saileko arduradunak animatuta erabaki zuen kiroldegitik errepidera irtetea.

Ondo oroitzen ditu Leturiatarren plazan bizikletan ibiltzen zen garaia. “*Motoreta* bat genuen eta txandaka ibiltzen ginen plazan, bueltaka. Egia esan, bizikleta ez zitzaidan bereziki gustatzen”. Hori dela eta urte askotan ez zen ibili. Duela hiru urte kirola egitea erabaki zuen, baina horretarako denbora oso gutxi du. “Libre dudan tartean spinning egiteko aukera nuen eta izena ematea erabaki nuen. Zer zen ere ez nekien”, aitortu du.

Berehala, Iñaki Urdangarin berarekin harremanetan jarri zen eta Goierriekin irteteko eskatu zion. “Goierri nesken taldea sortu behar zuela iragartzen zuen kartela ikusi nuen, baina ez nuen neure burua hor ikusten. Lehen urtean ez nintzen animatu, baina bigarangoan bai. Mendiko bizikleta batekin hasi nintzen, baina asko pisatzen zuela konturatu nintzen. Orduan errepidekoa erosi nuen. Ez nuen sekula pentsatuko horretan dirua gastatuko nuenik!”.

Orduetik asko ibili da. “Gero eta hobeto gabiltzala konturatu gara eta oso motiba-

Izaskun Larrañaga iaizko Treparriscos proban.



tuta gaude. Gure artean giro oso ona dago. Denboraldi hasieran ibilbide laburrak osatzen ditugu eta pixkanaka luzeagoak. Bizikletan ibiltzea esker onekoa da eta egindako ahaleginaren ondoren etxera oso harro itzultzen gara”.

Dagoeneko martxa batzuetan ere parte hartu dute, tartean Treparriscos ezagunetan. Aurten ere joateko asmoa dute. Goierri elkarteak antolatu duen Zero Etapan ez du parte hartuko. “Antio Eitzagatik igotzea gehiegizkoa iruditzen zait. Beharbada larunbatean azkeneko 50 kilometroak egingo ditugu eta igandean antolaketa lagunduko dugu”.

Ez daki Euskal Herriko Itzuliko lehen etapa gertutik jarraituko duen. “Egia esan, lasterketak ikustera ez naiz zale-tu. Ibiltzea gustatzen zait. Ondo pasatzeko ibiltzen naiz. Sufritzea ez zait gustatzen. Euria edo hotz handia egiten duenean ez naiz irteten”.

Oso argi du bizikletak zer ematen dion. “Sekula ez naiz trebea izan kirolean eta orain kirolaren alde onaz jabetu naiz: autoestimurako oso ona da eta dagoeneko kirola egitea beharrezkoa dut neure buruarekin hobeto sentitzeko. Bestalde, Goierriren irteerak gozamina dira: ezin dudanean edo eguraldi txarra egiten duenean pena hartzen dut”.

Sufritzea ez zaiola gustatzen esan du, baina berak ere pasatu ditu egun txarrak noski. “Lehen urtean Lizarrusti igotzen oso gaizki pasatu nuen. Lagundu egin behar izan zidaten. Orain, berriz, Eitzaga duintasunez igotzen dut. Egun onak txarrak baino askoz ere gehiago dira”, aipatu du.

Hori bai, argi utzi nahi du emakumezkoek gizonetzkoek baino askoz ere zailtasun gehiago dituztela bizikletan ibiltzeko. “Guk familiarekin lotutako askoz ere betebeharrak gehiago ditugu. Gutako askok igandeko itzulia osatu ondoren bazkaria prestatu behar dute, adibidez. Horrek asko mugatzen gaitu. Gizonezko askok, berriz, lane-tik irten bezain pronto bizikleta hartzen dute. Astegunetan emakume gutxi ikusten dira bizikletan ibiltzen. Seme-alabak ez dituztenak bakarrik”, amaitu du.

Mertxe Segurajauregi: “Bizikletan ibiltzea aberasgarria da eta pixka bat lasaiago bizitzen laguntzen du”

Mertxe Segurajauregik beti ezagutu du bizikleta etxean. Hala, bere belaunaldi-ko beste askok ez bezala, umetatik ibiltzeko aukera izan du. Egun lanera joateko eta aisialdirako erabiltzen du. Berak eta Joxemi Velasco senarrak Europako hamaika toki ezagutu dituzte bizikletarekin.

Gurasoengandik datorkio zaletasuna. “Aita araoztarra zen eta igandetan Donostiara joaten zen bizikletaz amarekin egon ahal izateko. Lasterketetan ere parte hartu zuen. Aitak beti eduki du bizikleta bat gutxienez eta amak ere erabiltzen zuen lanerako edo erosketak egiteko. Gure adinarekin-edo kostara bizikletan joaten ziren. Zumaian edo Orion lo egiten zuten eta hurrengo egunean itzultzen ziren”.

Berak ere umetatik erabili du bizikleta. “Legazpin bizi ginen, Urtatzola Txikin, eta erosketak egitera joateko amaren bizikleta erabiltzen nuen. Gehienek oinez egin behar izaten zituzten enkarguak. Senarrak zaletasuna odolean daramala esaten dit”. Dena den, urte batzuetan ez zen ibili. “Mendiko bizikletak heldu zirenean hasi nintzen berriro, dagoeneko senarrarekin. Hamar bat urtetan hemengo eta kanpoko toki asko ezagutu genituen. Iñaki Urdangarinek nesken taldea sortu nahi zuela eta bilerara joateko esan zidan. Zazpi bat emakume azaldu ginen eta, hala, errepidean ibiltzen hasi ginen. Mendiko bizikletari gurpilak aldatu nizkion horretarako. Ondoren errepidekoa erosi nuen. Dena den, mendikoa nahiago dut”.

Mertxe Segurajauregi, senarrarekin, Alemanian.



Esan bezala, berak eta senarrak hamaika toki ezagutu dituzte pedalei eraginez. Orain, gainera, autokarabana erosi dute. “Abuztuan Danubio ibaiaren ibilbidea egin genuen, Alemaniatic Vienaraino. Canal du Midi eta Donejakue Bidea ere egin ditugu, besteak beste. Bestalde, asteburuetan Goierri zikloturista taldeko lagunekin irteten naiz eta udaberritik udazkenera bitartean lanera bizikletaz joaten naiz”. Bellotan lan egiten zuen eta garai batean langile txirridulariek ez zuten erraztasu-

nik. Mertxe izan zen bizikletak gordetzeko txokoa lortu zuena. “Giza Baliabideak sailera joan nintzen eta aparkalekua eskatu nuen. Orain bost bizikleta uzteko tokia dugu. Ez gara asko bizikletan joaten garenak, hiruzpalau bakarrik”, azaldu du.

Bizikleta maite du, baina inoiz sufritzea tokatu zaiola onartzen du. “Tourmalet bi aldiz igo dut. Lehena aldian mendiko bizikletarekin eta gurpil lodiekin joan nintzen. La Mongietik gora ezin nuen, senarrari jaitsi egin behar nuela esan nion eta berak ez jaisteko erantzun zidan. Azkeneko kilometroa oso gogorra izan zen”.

Une gogorak bizitzea beharrezkoa da gozoez behar bezala gozatzeko. “Behin Urbasatik Andiarra joan ginen. Alfonbra gainean gindoazela zirudien. Sentsazio zoragarria izan zen. La Graciosa irlan ere asko gozatu nuen. Lanzarotetik joan behar da. La Graciosan ez dago autorik, ez beste ezer, eta askatasun sentsazioa sekulakoa izan zen”.

Bizikletak asko eman diola dio. “Bizitza beste ikuspuntu batetik ikusteko eta asko ikasteko aukera eskaini dit. Toki guztietan ikasi dut zer edo zer: beste kultura batzuk eta jendea ezagutu, pazientzia landu...”. Hala, jendeari bizikleta hartzea gomentatzen dio. “Denbora pixka bat hartu behar da. Autoan hamar minututan egiten dena bizikletaz hogeitun minututan egiten da. Probatu dezatela, ea zer ikusten duten bizikleta gainetik. Nire ustez beste ikuspuntu hau oso aberasgarria da. Pixka bat lasaiago bizitzen laguntzen du”, amaitu du.

Ignazio Zaldua: “Den-dena bizikletan egiten nuen, egun Udabe eta ‘Poxpolo’ ibiltzen diren moduan ibiltzen nintzen”

Ignazio Zalduak 83 urte ditu eta autorik apenas zegoen garaia ezagutu zuen. Berak bizikleta erabiltzen zuen laneko enkarguak egiteko eta asteburuetan hondartzara joateko.

Harrigarria bada ere, aharien eskutik hasi zen bizikletan ibiltzen. “Aitak ahariak zituen eta egunero Urolako trenbideko bigarren edo hirugarren tunel pareraino eramaten genituen ahari-jokoetarako entrenatzeko. Aita aurretik joaten zen bere bizikletarekin eta ni atzetik nirearekin. Makil bat eramaten nuen gelditzen zenean aharia mugiarazteko”. Ignazio umea zen oraindik. “Bizikleta txiki bat nuen: Orbea markakoa, urdina, oso polita”.

Garai hartan auto oso gutxi zeuden herrian eta etxe askotan ez zegoen bizikletarik. Pentsa... Zalduak bizikletek zerga ordaindu behar zutela eta matrikula modukoa eta argia eraman behar zituztela oroitzen du! “Zeppelinek kamioneta bat zuen, Hermek auto txiki bat, Unanuek beste bat eta Beltranek ardoa banatzeko kamioneta. Besterik ez zegoen. Errepidetik lasai asko joan zitekeen bizikletaz. Bestalde, ni nintzen bizikleta zuen Eliz-Kaleko haur bakarra eta gainontzekoek buelta bat emateko eskatzen zidaten”. Zaldua abila zen gainera. “Plazara titirite-roak etorri ziren eta batek hanka bat aurreko gurpilean jarri zuen, bestea atze-koan eta eskuekin eragin zien pedalei. Hori egiten ahalegindu nintzen eta baita lortu ere”.

Koxkortu zenean ez zion pedalei eragiteari utzi. “Jai egunetan Urbe dendako Luis



Ignazio Zaldua Urretxuko Godoy bizikleta-dendan.

Urdangarin eta biok eta gure andregaiak Zarautzera joaten ginen gure bizikletekin. Lepotik helduta joaten ginen errepidetik! Hamaiketakoa Iraetan egiten genuen. Zarautzera heldutakoan bizikletak lagun baten tabernan utzi, bermuta hartu eta hondartzara joaten ginen. Ondoren, beste bermut bat hartu eta etxetik eramandakoa jaten genuen. Itzultzeko, Zumaiara bizikletan joaten ginen eta han trena hartu”.

Aisialdirako ez ezik lanerako ere erabiltzen zuen bizikleta. Orbea urdina oparitu zion osaba Rojo y Zalduako bazkidea zen eta Ignaziok enpresa honetan lan egin zuen. “Baten batek balezta bat eskatzen zuen bakoitzean bizkarrean hartu eta bizikletan geltokira eramaten nuen trenean bidaltzeko. Bizikletari lotu zitekeen karrotxoa ere bagenuen”, azaldu du.

51 urtetan lan egin zuen eta beti bizikleta erabili zuen. “Den-dena bizikletan egiten nuen: egun Udabe eta *Poxpolo* ibiltzen diren moduan ibiltzen nintzen”. Garai hartakoak ez ziren egungoak bezalakoak, ordea, ezta gutxiago ere. “Andregaiarekin

hondartzara joateko tailerrekoa erabiltzen nuen, ez bainuen neurea. Kubiartak albo-ko kablea etenda zuen eta esparatrapu batekin eramaten nuen. Aurreko freno askatu egiten nuen, bestela esparatrapuarekin tope egiten baitzuen eta hankaz gora erortzen bainintzen”.


Horren zalea izanik, ahal bezain pronto bizikleta erosi zuen, Donostiako Comet dendan. “BH markakoa zen, gorria. Hau utzi nuenean Rojo y Zaldua enpresako Malleari beste bat erosi nion. Alabei bi erosi zizkien, baina ez zituzten erabiltzen eta Odriozolak Urretxuko Abenidan zuen bizikleta alokairu dendan zeuden. Bata nik erosi nuen eta bestea Felixtxu Urtzelaik”. Erretiratu zenean bizikleta bere alaba Eliren senarrari oparitu zion eta ibiltzeari utzi zion. “Etxean doblatzen diren horietako bat dut. Alabetako bati erosi nion eta ganbaran dago. Bilobei eskaini nien, baina egungo haurrek ez dituzte halako bizikletak nahi. Elik 12 urteko semeari sekulako bizikleta erosi dio. Berehala gil-tzarrapoa oparitu diot”.

Iñaki Baztarrika: “Haurtzarotik zahartzarora egin daitezkeen kirol oso gutxi daude eta hau da horietako bat”

Iñaki Baztarrikak 43 urte ditu eta 13 urte dituenetik Goierri kirol elkartearen zikloturismo saileko kidea da. Aitari esker zaletu zen. “Aitak, futbolera eramane beharrean txirrindulari lasterketak ikustera eramaten ninduen. 13 urterekin errepedeko lehen bizikleta erosi zidaten eta zikloturistekin ibiltzen hasi nintzen. Asko ikasi dut beraien eskutik: bizimodu bat eskaini didate, taldean lan egiten irakatsi didate... *Pastas, Oskar, Vitorio, Fatx, Kaliki...* maisuak izan dira niretzat”. Mutiko bat zen Goierrikoekin irteten hasi zenean eta mimatu egiten zuten. “Oso ondo zaindu ninduten. Behin Opakuan matxura bat izan nuen eta Josetxo Mujikak bultzaka igo ninduen”.

Elkartasuna lantzeaz gain, turismoa egiten dute. “Espainian txango asko egin ditugu, Pirinioetara askotan joan gara, Alpeetara, Dolomitetara... 10-12 egun lagunekin ematea, jendea ezagutzea, turismoa eta kirola uztartzea... gauza ederra da. Stelvio mendatea igo genuen eguna askotan oroitzen dut. Flandriako Toureko eta Paris-Roubaixeko errepedetan ibiltzea ere oso pozgarria izan zen”. Goierri elkartearen zikloturismo sailak antolatutako irteeretan ez ezik martxetan ere parte hartu du. “10 bat urte eman nituen horretan. Garai hartako giroa hobea zen: lehiakortasuna txikiagoa zen eta txirrindulariek gehiago laguntzen zioten elkarriz. Madriletik gora antolatzen diren martxa askotan parte hartu dut. Quebrantahuesos ospetsuan, adibidez, zazpi aldiz parte hartu dut. Lehenengoz

Iñaki Baztarrika La Bonnette mendatean gora.



bigarren ekitaldian”.

Bizikleta bere lagun banaezina du eta izan dituen guztietaz gogoratzen da. “Lehenengoa gurasoek oparitu zidaten eta gainontzekoak nik erosi nituen. Horietako lehena oraindik ikaslea nintzenean erosi nuen. Taberna batean lan egiten nuen eta lehenengo koadroa erosi nuen. Ondoren, pixkanaka, gainontzeko guztia. Urtebete pasatu zen muntatu nuenerako”.

Garraiobide hau asko maite du, baina ez du egunerokoan erabiltzen. “Donostian lan

egiten dut, baina txirrindulari urbanoa izateko oso poliki joan behar da eta nik ez dut ohiturarik: izerditan hasten naiz”.

Beste batzuei, berriz, asko kostatzen zaie izerdi egitea: bizikletan ibiltzea oso gogorra dela iruditzen zaie eta ez dute ikusi ere egin nahi. “Bizitzako gainontzeko alor guztietan bezala, ohitura hartzea da kontua. Nik bizikleta oso jeloskorra dela esaten dut: entrenatu beharra dago. Gozatzeko gakoa norbera bere mailaren arabera ibiltzea da. Haurtzarotik zahartzarora egin daitezkeen kirol oso gutxi daude eta hau da horietako bat: lesio oso gutxi sortzen ditu. Kirola egiten hasi nahi dutenei bizikleta gomendatzen diet, baina askok errepedean ibiltzeari beldurra diote. Ez dira konturatzen asteburuetan trafiko gutxiago dagoela. Gainera, inguru honetan errepede oso lasaiak ditugu”.

Baztarrikak ez du sekula pedalei eragiteari uzteko asmorik. “Nire ametsa astegunetan bizpahiru aldiz ibiltzea da. Egunduz horretarako aukerarik eta duela zortzi urtetik spinning egiten dut. Hasieran adarra jotzen zidaten eta orain mundu guztiak egiten du. Lagunak egiteko eta pisua mantentzeko aproposa da, errepedea askoz ere gogorragoa da”.

Horren zalea izanik lasterketak jarraitzen ditu. “Telebistaren aurrean askotan loak hartzen nau, baina afizionatu mailako lasterketak ikustea asko gustatzen zait. Semea askotan eramaten dut lasterketak ikustera. Jaio denetik bizikleta du. Orain futbol kontuarekin hasi da, baina itzuliko da bide onera!”.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ATA

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER ARRATIBEL
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

KEROS

Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



Lanbete

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Muntaiak e Instalazioen Etorria

HERCE

Enkargatua, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9 Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Diamanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA

Geureta JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

ALEX - GIBOLTA

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

IKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

julita

MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga
Tel. 943 72 05 62

Otamotz

Iker - 647 319 775 - beasain@iragarri.net


TOKI APROPOSA
DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA
JARTZEKO



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Txurroak airean




-Piruloko txurrero jauna (P): Aizue, ze kristo da furgoneta hori? Zer zarete, sekretak?
-Furgoneteroak (F): Ez, ez, airearen kalitatea neurtzen ari gara.
-P: Nire txurroek airea kutsatzen dutela esaten ari zarete?
-F: Zure txurroek ez, PM10 partikulek baizik. Ez zinen eskuin abertzalearen hitzaldian egon?
-P: Ba ez, nahikoa dut egunero euren aurpegiak atzeko kartel puska horretan ikustearekin. Baina kontua ez da hori. Zergatik jarri duzue furgoneta hori HOR?
-F: Bi herrien erdian dago eta... ohartu zara Markel Olanok zer nolako giñol aurpegia duen?
-P: Justu horixe komentatu nion

atzo emazteari. Hura da, bankuan eserita dagoena.
-F: Kutsakorra dirudi.
-P: Nire emazteak?
-F: Ez, Markel Olanok.
-P: Arrazoia, baina haren kalitatea neurtzeko ez duzue Batzoki aurrean furgonetarik jarri.
-F: Esan dizugu lehen, plaza hau bi herrien erdian dago eta...
-P: Nire txurroak ere bai. Zergatik ez duzue Zumarragako plazan jarri?
-F: Alkateak ez du nahi.
-P: Eta Urretxukoan?
-F: Alkateak ez du nahi.
-P: Eta Eitzan?
-F: Alkateak ez du nahi.
-P: Konturatu al zarete

Antiorako bidea zein txukun laga duten?
-F: Bai. Parrokianoek esan digute bitxikleteroek etorri behar izan dutela bidea konpontzeko.
-P: Delinkuente kabrioiak! Bitxikleteroak, esan nahi dut. Beldur naiz tropela hemendik pasatzean furgonetak eztanda egingo ez ote duen. Badakizue, PM10, EPO, klenbuterol... airea garbi ekarriko dute horiek.
-F: Jada lehertu ez bada... Zonalde zerrienetako batean bizi gara, airea kutsaturik dago, gure gorputzak ere bai, baina lasai, Euskal Herriko Itzuliari eta hauteskundeei esker herriak polit-politak lagako dizkigute.

Bizikletan ibiltzen al zara?

Euskal Herriko Itzulia ikusteko asmorik ba al duzu?



Juan Jesus Gordillo



Bizikletan ibiltzea asko gustatzen zitzaidan, baina dagoeneko ezin dut. Gaztetan asko erabiltzen nuen: lanera joateko, hondartzara joateko... Nire anaiak lasterketetan ere parte hartu zuen. Euskal Herriko Itzulia ikusteko asmoa dut. Hemendik irte-ten bada, nola ez dut ikusiko ba? Garai batean ziklo-kros lasterketa guztietara joaten ginien.

Joana Carro



Ez naiz oso zalea, baina umearekin aterako naiz Euskal Herriko Itzuliaren irteera ikustera. Umeei halako gauzak asko gustatzen zaizkie. Gainera, mototoxoarekin oso gustura ibiltzen da. Nik patinak nahiago ditut, baina seguru aski haurra koxkortzen denean berarekin bizikletan ibiltzea tokatuko zait.

Pello Biain



Ez naiz batere bizikleta zalea. Egia esan, kirolak ez zaizkit gustatzen: ez ikusteko eta ezta egiteko ere. Badut bizikleta, baina urtean bizpahiru aldiz bakarrik ateratzen dut umeekin ibiltzeko. Ez dut Euskal Herriko Itzuliaren irteera ikusteko asmorik, baina hurrekin banago beharbada hurbilduko naiz.

Jonmikel Intsausti



Bizikletan ibiltzea beti gustatu izan zait, baina egun ez dut horretarako aukera handirik. Kirol interesgarria da. Zikloturistak eta mendizaleak, nire ustez, laguntasunaren eta lehiakortasuna ezaren eredu onenak dira. Ez dut Euskal Herriko Itzulia jarraitzeko asmorik. Gauza txikiak handiak baino gustukoagoak ditut.


bota bertsoa!

Bertso sorta osoa www.otamotz.com atari digitalean.

Gaia: 'Martxoan, bertsoa!' txapelketako finaleko haserako agurra (2011-3-25).

Doinua: Getariko txakolina.

Gabiri2 taldea



Atxunberriren ebangelioa
Zantagoiti baseritik. Amen.

Sinismena daukagu
hemen gori-gori,
intsentsu usaiekin
gaude erdi grogi,
urtean behinekoak
kalteik ez inori,
Jaunaren izenean
gabon guztiori.

Gaztetxea, gaztetxea
deabruaren etxea.

Kristoren odolakin
beteta zahatoa,
indarrean jartzeko
kategorikoa,
hirukotean partez
gu gatoz laukoa,
hiru monagiloak
eta Jaungoikoa.


Ta mojan bat baldin bada
igo dadila oholtzara.

Iturrioztar hauei
fin begiratuta,
aurpegian dauzkate
hainbat grano punta,
eta hauekin gaude
oso harrituta,
pekatuak haundinak
komunen sartuta.

Pestilloa, pestilloa
hori hauen trukilloa.

iritziz iritzi


Ibon Garmendia



Agintariak dantzan

2011. honek martxoaren 20. ere jo du eta gure herrian bertsoaren doinuak topera dabilta. Aurten, dena den, beste doinu batzuk arreata beste toki batzuetara desbideratu didate: bai, lau urtez behin ospatzen den musika/dantza ziklo batera. Hauteskunde atarian egiten diren auresku edo agur doinuez ari naiz. Eta zergatik? Ba argi dago, hainbat proiekturen inaugurazioengatik. Zeremoniatxoaren gailurra dantzak jartzen du. Ez dakit dantzariak nola sentituko diren honelako egoera batean, baina zentzu du eraikin berri bati dantza egiteak? Nire ustez dantza hau "debaluatu" egin dugu erabat. Ohore dantza da, solemnea, eta horrek pertsona jakin bati edo batzuei eskainia izan behar du. Egia da ekitaldi hauetan agintariak izaten direla ekime-

naren buruan eta beraiei egiten zaiela ohorezko dantza. Agian, beraietako askok merezita izango dute ohore hori jasotzea, baina seguru nago momentu horretako arrazoiengatik ezetz. Aginterako aukeratzen ditugun lagun horien lana gure dirua kudeatzea da. Beraien betebeharrak hori da eta ez zait nahikoa arrazoi iruditzen urtean hamaika agur "jasotzeko". Lantegira doan langile edo enpresariari egiten al zaio honelakorik? Honelakoen aurrean, bi buelta ematea eskatuko nieke datozen agintariei ekitaldi hauek nola egin pentsatzen, proiektu batzuei gorputz eta arima eskaintzen badakite eta. Bestalde, dantzari/dantza taldeei agurrari dagokion prestigioa ematea eta lantzea eskatuko nieke.



Cometas en el cielo

Khaled Hosseini

Adiskidantzaren traizioa da Khaled Hosseinik idatzitako bere lehen nobelaren haria. 1975eko Kabul protagonista izanda, ustekabe batek betirako aldenduko du Amir eta Hassan gazteen adiskidetasun zintzoa. Horrek sortu dezakeen beldurra, erruduntasun sentimendua, lotsa... bere gain hartuta eta 80. hamarkadako Afganistanen gorabeherak behartuta, Estatu Batuak bihurtuko dira

Amir narratzailearen esperantza. Baina iraganak ez du ahanztura ezagutzen eta deika etortzen denean tinko heldu behar zaio. 26 urte beranduago, Afganistanera itzuli eta etorkizuna josten hasiko da, balioa, onestasuna eta leialtasunaren haria eskuetan eutsiz, izenburuak aipatzen digun kometaren isla: beti hegaka jarraitu zuen laguna.

Araiz Padrón


Control

Pedro the lion

Ez zait lagunek taldeak gomendatzea gustatzen, gero ezinezkoa izaten delako lagunaren eta taldearen arteko lotura hori haustea. Baina gutxi batzuetan abestiek loturak hausten dituzte eta ikusezina den hiperbole bat lehertzen zaigu barnean. Heltzen zaituenean eguna iraultzen dizu, astea, gauak; "stop-and-pause" esperientzia. Bere unibertso grey-ean harrapatzen zaitu eta ezinezkoa da hortik ihes egitea. Instrumentalki sinpletasu-

na eta letretan gardentasuna dira Pedro the Lionen intsignia. Paisaia horretan kokatzen da *Options*, disko honetako harribitxia. Abesti honen hauskortasuna ia epikoa da, telefono deiak sorrarazten ditu, gauzak esateko gogoia. Doinu indie-leun nahiz keinu ilunagoekin, David Bazanek nahi duena lortzen du. Barne inpultso hori bizi nahi baduzu, heldu, ez zara damutuko.

Ane Arrieta



Biutiful

Guillermo Arriaga

Guillermo Arriaga gidoilaria gabeko bere lehenengo pelikula izan da Alejandro Gonzalez Iñárritu zuzendari mexikarrentzat *Biutiful*. Filmean Javier Bardemek antzezten duen Uxal da protagonista nagusia. Bartzelona, hiri moderno eta kosmopolitan, galduta sentitzen du bere burua eta emozionalki desorekatuta dabil. Emaztearekin zuen erlazioa era mingarrian bukatu berri du, eta honi buelta ema-

ten saiatzen ari da. Seme-alaben zaintza bere gain du eta eginbehar hau are gehiago zailtzen zaio heriotza gertu duela sentitzerakoan. Inguruan dituenak zaindu behar ditu baina bere burua zaintzearen ardura ahaztu gabe. Uxbalen istorioarekin orain arteko bere pelikularik intimistena egin du zuzendariak, sufrimenduaren inguruan hausnarketa gogorra.

ButaK 21 zineklub taldea



Mugimendua

Carlos Mediavilla



zuek bai jakin!

Elgarresta ahizpak: titulurik gabeko kazetariak

Duela 70 urte Rufino Elgarrestak postari lana egiten zuen Zumarragan eta alkateak egunkarien banaketaz ere arduratzeko eskatu zion. Urte hauetan guztietan egunkarien salmenta eta banaketa asko aldatu diren arren, Elgarrestatarrek dira Urretxu eta Zumarragako saltzaile eta banatzaile nagusiak. Hala, 'Periodistak' ezizenaz ezagutzen zaie. Marijo eta Mariaje Elgarrestarekin izan gara euren lanari buruz hitz egiten.



Noiz eta nolatan hasi zen zuen familia kontu honetan?

Marijo (M1): Rufino Elgarresta aitona eta Pilar Bastarrika amona hasi ziren lan honetan, 1942an. Aitona Irigon baserrikoa zen eta amona Eitzagako igeltseroen etxekoa, eliza parean dagoena. Aitona postaria zen eta alkateak egunkariak ere banatzeko eskatu zion. Izan ere, inork ez zuen lan hori egin nahi eta banaketa oso kaxkarra zen. *La Voz de España* egunkarikoek alkateari deitu zioten eta honek aitonari. Correosek lan bat edo bestea aukeratzeko esan zionez, amona arduratu zen egunkarien banaketaz. Garai hartan gure aita soldadutzan zegoen eta itzuli zenean berari ere lan egitea tokatu zitzaion. Amona hil zenean, berriz, gure ama ere hasi zen. Amonarekin izeba Joxepak ere lan egin zuen.

Familian lan egin duzue beti.

M1: Aitak goizeko banaketa egiten zuen eta ondoren lantegira joaten zen. Arratsaldean, berriz, *La Unidad* egunkaria banatzen zuen. Hau arratsaldeetan ateratzen zen, hasieran eguneroko. Gero igandeetan argitaratzeari utzi zioten. Taberna eta elkarte gastronomikoetan banatzen genuen batez ere. Izan ere, arratsaldetan ez genuen kioskoa irekitzen. Dena den, jendeak bazekien nondik nora genbiltzan eta egunkaria nahi zuena guregana etortzen zen. *La Voz de España*, *La Unidad* eta *La Hoja del Lunes* aldi berean itxi ziren.

M2: Arratsaldeetan *La Unidad* Mordo tabernara eramaten genuela eta eguneroko jendez gainezka izaten zela gogoratzen dut. Izugarria zen jendeak nola poteatzen zuen.

Zenbat kiosko zenituzten?

M1: Hasieran bakarria genuen, Urola trenbidearen pasonibelaren ondoan. Egurrezkoa zen eta aitonak egin zuen.

Egunkari asko saltzen al ziren?

M1: Gauzak asko aldatu dira. Garai hartan guk bakarrik saltzen genuen egunkaria. Dendetan enkarguz uzten genuen. Dendariek euren bezeroei mesedea egiteko hartzen zituzten egunkariak. Egun, ordea, saltzeko hartzen dituzte eta komisia dute. Kontuan izan behar da garai batean denda txikietan egiten zirela erosketa guztiak. Eitzagara eta Orbegozo auzora karrotxoarekin joaten ginela gogoratzen dut. Amak 1965ean-edo ekarri

“Hasieran kiosko bakarria genuen: pasonibelaren ondoan zegoen, egurrezkoa zen eta aitonak egin zuen”

zuen lehen autoa. Ordura arte karroari tiraka ibiltzen ginen. Igandeetan, egunkari gehiago saltzen zirenez, karro handiagoa erabiltzen genuen. Aitak bizikletari lotzen zuen eta hala eramaten zituen egunkariak geltokitik kioskora. Euria egiten zuenean erabiltzen zuten toldoa gordeta dugu oraindik.

Lehen lana gogorragoa izango zen.

M2: Baina orain baino askoz ere gehiago saltzen zen.

M1: Nik ez dut horren argi. Garai batean guk bakarrik saltzen genituen, baina egun

janari dendetan eta liburu dendetan ere saltzen dira. Kontuan izan behar da herria asko hazi dela aitona-amonak lanean hasi zirenetik. Izeba Joxepak dozena erdi egunkari besterik ez zuen eramaten Leturietara. Egun, berriz, etxebizitza asko daude inguru hartan.

M2: Bai, baina duela urte batzuk egun baino gehiago saltzen zen. Beharbada gu hasi ginenean mundu guztiak ezin zuen periodikoa erosi, baina gero salmenta asko hazi zen eta egun jaitsi egin da.

Egunkari askoren sorreraren eta desagertzearen lekuko izan zarete.

M1: Franco hil zenean panorama erabat aldatu zen. Estatu mailako egunkariak pikutara joan ziren eta *El Diario Vasco* hartu zuen nagusitasuna.

Aldizkariak ere hasiera-hasieratik saldu al dituzue?

M2: Beti izan ditugu. Egunkariak eta aldizkariak saldu ditugu, besterik ez.

M1: Garai batean *Hola*, *Lecturas* eta *Diez Minutos* bakarrik ekartzen genituen. Postaz heltzen ziren.

M2: Egun sekulako eskaintza dago. Dena den, gehien saltzen direnak txutxu-mutxu aldizkariak dira oraindik ere: *Pronto* eta *Hola* batez ere.

M1: Telebistan txutxu-mutxu saio pila dago eta horrek salmenta jaitsiarazi du, baina hala ere oraindik horiek dira gehien saltzen diren aldizkariak. Bildumak enkarguz bakarrik ekartzen ditugu. Horrekin disgustuak izan ditugu, batzuek abisatu gabe erosteari uzten baitiote.

Zenbat senitarteko zabilzate egun lanean?

M1: Pili lehengusuak eta Iñaki anaiak goizetan laguntzen digute. Bestelakoan gu arduratzen gara lanaz.

zuek bai jakin!

Lan gogorra al da?

M1: Oso lotua da. Urtean 362 egunetan goizeko 4.30ean jaiki behar da. 5.00etan geltoki ondoan dugun lokalera joaten naiz. Egunkariak han uzten dizkigute. *El Diario Vasco* eta *Noticias de Gipuzkoa* ordu horretan han izaten dira. 6.00ak aldera *Gara*, *Berria*, *Marca* eta *El Mundo Deportivo* heltzen dira. Gainontzekoak 7.00ak aldera heltzen dira. Banaketa 9.00etan bukatzen dut eta ondoren Urretxuko kioskora joaten naiz Iñaki lanera joan dadin.

M2: Oporretara joateko ohiturarik ez dugu, baina aukerarik ere ez.

Hotza eta euria egiten duenean zuen lana ez da gozoa izango.

M1: Kaleko lana gogorra da. Eguraldi ona egiten duenean zoragarri, baina elurra egiten duenean... Autoa elurrarekin ibiltzeko egokituta dugu, baina beste askok ez dute halakorik egiten eta gure lana oztopatzen dute. Bestalde, egungo botak eta arropa garai batekoak baino askoz ere hobeak dira.

Duela egun gutxi Piedad kalean kioskoa estreinatu duzue.

M1: Bagenuen estreinatzekeo gogoia, utzitako lokal batean baikeunden eta hala ezin baita eroso lan egin. Zertarako egokitu gero joan beharra baitugu? Hamabost egunetan bueltan izango gine-la esan ziguten, baina hilabeteak eman ditugu bertan.

M2: Kiosko berria oso ondo dago.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

M2: Gaizki. Baina egunkarien inguruan lan egiten dugunon etorkizuna bakarrik al da beltza?

M1: Urte asko pasatu dira jada kazetari batek beste lan bat bilatzeko esan zida-



Mariaje eta Marijo Elgarrestaren gurasoak.

netik. Internet dela eta, gure lana pikutara doala esan zidan.

M2: Baina horrenbeste jendek irakurtzen al du egunkaria Interneten?

M1: Egunkaria etxean jasotzen dutenen artean gazteena gure adinekoa da. 50 urtetik azpikoak ez ditugu. Eta kioskora gazte gutxi etortzen dira egunkariak erostera. Dena den, nire ustez paperezko egunkariak Internetekoak ematen ez duen zer edo zer du.

M2: Egunkaria irakurtzen ez dutenek ez dute ulertzen zergatik irakurtzen dugun, albisteak telebistan ere ematen dituztela esaten dute. Baina egunkaria irakurtzea beste gauza bat da. Batzuei denborapasak gustatzen zaizkie, adibidez.

Zuek behintzat egunkari irakurleak izango zarete ba...

M1: Herriko kronika eta eskelak irakurtzen ditut. Denbora gehiago dudanean

egunkaria aurretik hasten dut eta dena irakurtzen dut, kirolen atala izan ezik.

M2: Nik ere gustura irakurtzen dut. Eskelak begiratzen ditut lehenbizi. Ni ere ez naiz oso kirolzalea.

Egunkariak saltzen eta banatzen lan egingo duen Elgarrestatarren laugarren belaunaldi bat izango al da?

M1: Ez dut uste.

M2: Ez dago esaterik, baina ez dirudi. Gure seme-alabak Unibertsitatean ikasten ari dira. Kioskoko lana ez dute gustuko, baina ez dago jakiterik non bukatuko duten. Dena den, gero eta lehia handiagoa dugu. Lehen liburu-dendetan bakarrik saltzen ziren egunkariak eta orain okindegietan ere bai. Pastelak saltzen hasi beharko dugu...

Asteburuetan astegunetan baino gehiago saltzen al da?

M2: Askotan kafesnea hoztu egiten zait

eta ni pozik. Izan ere, hori komeni zaigu: jende asko etortzea. Larunbat eta igandean egunkaria begiratzeko astirik ere ez dut izaten. Etxera lehertuta itzultzen naiz. M1: Larunbateko azokak mesede egiten digu. Izan ere, plaza ondoan gaude. Gainera, askok asteburuetan bakarrik erosten dute egunkaria. Izan ere, astegunetan ez dute irakurtzeko astirik.

M2: Dena den, nire ustez benetan gus-tuko dutenek hemendik edo handik irakurtzeko denbora ateratzen dute. Besterik ez bada komunean irakurtzen dute. Batzuek nahiago dute ogirik gabe gelditu egunkaririk gabe baino. Askok 40 urte baino gehiago daramatzate etxean egunkaria jasotzen.

M1: Egun batean euren etxera eramatea ahazten badugu, telefonoz deitzen digute. Normala da, konpromisoa dugu.

Bestalde, kioskoa herriko txutxu-mutxuen berri izateko toki aproposa izan-go da.

M2: Bai, baina kontu handiz ibili behar da, batzuetan albisteak puztu egiten baitira.

M1: Kontu handiz ibili behar dugu, herrian

guk esandakoak pisu berezia duela baitirudi: “*Periodistak* esan du”, esaten dio jendeak elkarri.

M2: Askotan jendea zurrumurruekin etortzen da, horren inguruko zer edo zer entzun dugun galdetuz.

**Egunkari saltzaileari *Periodista* deitzea kurio-
soa da. Beste herrietan ere**

“*Beti ‘Periodistaren alabak’ izan gara, baina batzuei lotsa ematen die guregana hala zuzentzea*”

hala gertatzen al da?

M1: *Periodistak* deitzen digute, baina ez gara, ezta gutxiago ere.

M2: Ez dakit beste herrietan halakorik gertatzen den, baina guk behintzat erraz lortu dugu titulua! Ezizenak ez gaitu min-

tzen, ezta gutxiago ere! *Beti Periodistaren alabak* izan gara! Batzuei lotsa ematen die guregana hala zuzentzea, baina lasai asko egin dezakete.

Zuen seme-alaben batek *Kazetaritza* ikasi al du?

M2: Ez. Ez nuke nahi, gainera. Lanbide gogorra iruditzen zait. Albistearen bila joan beharra... Mendi puntan mikrofono batekin egon baino nahiago dut egunkariak saldu.

M1: Seme-alaba guztiek zientzietara jo dute: ingeniari-tza, farmazia, arkitektura...

Bukatzeko, gogoratu al duzue zein egunetan saldu zenuten egunkari gehien?

M2: Gabonetako loteria zozketaren ondorengo egunean saltzen da gehien.

M1: Hori ere asko jaitsi da, jende askok Interneten begiratzeko baitu. Bestalde, Amelio Mendijurren heriotza izugarria izan zen. Txirrindularitza zaletasun handia zegoen eta berehala izan genuen gertaeraren berri. Nik neuk deitu nuen *El Diario Vasco* egunkarira gertaeraren berri emateko. Oraindik ez zekiten ezer.

Egin harpidedun

OTAMOTZ

OTAMOTZ
urtean 20 euro

ZINTZO MINTZO
urtean 25 euro

OTAMOTZ+HITZA
urtean 75 euro

GOIERRIKO **hitza** info

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain

Andoni Berriotxoa: Gatazken ondorioen lekuko

Andoni Berriotxoa urretxuarra prentsa argazkilaria da eta mundu mailako gatazka garrantzitsuenetako batzuen ondorioak jaso ditu bere kamerarekin. Berriki Birmanian izan da, egun Saharan da da eta etorkizunean Kolonbia eta Venezuelara joan nahi du. Bere lanbideari buruz hitz egin du.



Andoni Berriotxoa Birmaniako KNLA gerrillako kideekin eta Narciso Contreras argazkilaria mexikarrarekin.

Makina bat lanetan aritu zara argazkilaritza freelance moduan hasi aurretik. Nola heldu zara honetara?

Asko bidaiatu dut eta argazkilaritza betidanik oso gustukoa dut. 2009ko Aste Santuan Saharara joan nintzen. Manifestazioa izan zen, 18 urteko mutil batek mina bat zapaldu zuen eta hanka lehertu zitzaion. Saharar batek eta biok bakarrik atera genuen une horretako argazkia. *Gara*, *Aurora Photos* eta *Paris Matchi* saldu nizkien argazkiak. Azken hauek bere banderarekin zegoen frantses baten argazkia erosi zidaten, Frantzia Marokoren alde dagoela suposatzen baita. Gertaerak lur jota utzi ninduen, nigandik oso gertu izan baitzen eta gaztea ezagutzen bainuen. Jendeari jazotako azaltzen saiatzen nintzenez ez zuela ulertzen konturatu nintzen. Argazkiak ikusten zituztenean ulertzen zuten. Kazetaritza argazkilaritza beti gustukoa izan dut eta, langabezia nengoen eta kamera nuenez, aurrera egitea erabaki nuen. Oraindik ez dit biziitzeko adina ematen: hilabete batzuetan 700 euro irabazten dut eta beste batzuetan 50. Zorionez, joaten naizen tokietan bizitza oso merkea da. Saharan 65 euroekin hilabete eman nuen.

Gatazketan espezializatu al zara?

Ez. Bizpahiru gatazketan izan naiz, baina horretara dedikatzea oso zaila da eta gainera ez da gehien atsegin dudana. Nahiago dut gatazken ondorioen argazkiak atera. Saldu dudana azken lana Birmania eta Tailandia artean dagoen errefuxiatu kanpamentuari buruzkoa da. Tailandiak ez zuen Ginebrako ituna sinatu eta errefuxiatuak guztiz ahaztuta dituzte, baina euren

kasua ez da oso ezaguna. Inork gutxi egiten die jaramon. Gobernu Kanpoko Erakunde batzuk daude, baina hirietan lan egiten dute. Saharako gerraren ondorioei buruzko lanak ere egin ditut. Errefuxiatu gune batean dagoen psikiatrikoari buruzkoa, adibidez. Ez dute argindarrik eta urik, lotu egiten dituzte...

*“Moethee Zuni ez zion
graziarik egin kazetariak
izatea, baina euskalduna
nintzela esan nionean
abegitsuagoa agertu zen”*

Ez dituzte hala torturatu nahi, baina ez dute gaixoak zaintzeko baliabiderik. Halako gaiak atsegin ditut.

Bakarrik lan egiten al duzu?

Bai, baina Birmanian *periodismohuman.com* web orriko kazetari bat ezagutu nuen: Carlos Sardiña. Komunikabideek testuak, argazkiak eta bideoak eskatzen dituztenez, gure indarrak batzea erabaki genuen. Biok ilegalki sartu ginen Birmanian eta abenduaren 1ean Moethee Zun, Asiako Che Guevara, ezagutzeko aukera eskaini ziguten. 80ko hamarkada amaieran Birmaniako errebolteko gidaria izan zen eta hainbatetan hildakotzat eman dute. Bere gerrilla gidatzeaz gain, gainontzeko guztiak kontrolpean ditu. Dagoeneko urte batzuk pasatu dira bere berri azkenez izan zenetik eta ondoko dendan genuen. Gu kazetariak izateak ez zion

inongo graziarik egin, baina euskalduna nintzela esan nionean abegitsuagoa agertu zen. Euskal gatazkaz hitz egiten hasi ginen eta oso ondo informatuta dagoela konturatu ginen. Kolonbia, Venezuela eta beste hainbat herritako errealitatea ere gertutik jarraitzen du. Mexikon 25 gerrilla daudela esan zigun eta bertako gure lagun batek 17 besterik ez zituen ezagutzen.

Nolako izan zen elkarrizketa?

Gure telefono zenbakiak eskatu zizkigun eta elkarrizketa eskaini edo ez pentsatuko zuela esan zigun. Hirira itzuli ginenean elkarrizketa egiteko deitu ziguten. Bananduta eraman gintuzten eta egun ezberdinetan. Izan ere, Birmaniako armadak gerrillarien buruzagi bat baino gehiago hil du hirietan eta Moethee Zunek ezkutalekuz etengabe aldatzen du hirian dagoenean.

Primizia lortu zenuten, baina gaur egun halako lanak ez dira nahikoa baloratzen espainiar Estatuan.

El País egunkariak 48 euro eskaini zizkigun bi orrialdeko elkarrizketa baten eta hiru argazkiren truke. Zur eta lur gelditu ginen. *The Independent* egunkariak 1.200 euro ordaindu zizkion Carlosi zutabe bategatik eta Suediako egunkari anarkista batek 100 euro niri argazki txiki bategatik. Zergatik ari den hau gertatzen espainiar Estatuan? Komunikabideak enpresa hutsak bilakatu dira eta Birmania ez da espainiarren interesekoa. Are gehiago, telefonoa hartu zigun nazioarteko saileko kazetariak ez zekien Moethee Zun nor zen. Elkarrizketa prezio horretan ez saltzea erabaki genuen, noski. Gure teiltura harriak botatzea izango zen.

Gauzak benetan gaizki daude.

Krisia erabatekoa da. Argazkilari independentea izatea beti izan da oso zaila, baina egunkariak interes ekonomiko eta politikoen mesedetan lan egiten duten enpresak bilakatu dira. Albiste batek etekin ekonomikorik ez duela eman behar uste badute ez dute argitaratzen. *El Mundo* egunkarikoek gure argazkiak web orrian jarriko zituztela esan ziguten, baina hor jartzen diren argazkiengatik ez dutela batere ordaintzen.

Nolakoa da argazkilarien arteko harremana?

Batzuekin oso ona eta besteekin oso txarra. Azken finean, hau negozioa da. Txiletar baten, italiar baten eta mexikar baten laguna egin nintzen eta kontaktuak elkarri pasatzen genizkion. Baina sekulako kabroia den madrildar bat ere ezagutu nuen. Nire ondoan eseri zen jatetxe batean eta telefono zenbaki bat lapurtu zidan. Zenbaki horri esker oraindik fotografiatu gabe zegoen batailoi batengana heltzea lortu nuen. Bera ere han azaldu zen. Gainera, ez zituen aginduak jarraitu eta guztion bizitzak arriskuan jarri zituen: argazkiak flasharekin atera zituen, kolore bizidun arropa eraman zuen... Azkenean beraiekin jarraitzea debekatu zioten eta bere blogean liberazio armadak informazioa zentsuratzeko duela idatzi du.

Zeintzuk dira zure gustuko argazkilariak?

Pep Bonet eta Massimo Berruttiren lanak izugarriak iruditzen zaizkit. Gatazkak baino gehiago gatazken ondorioak lantzen dituzte. Gaur egun gerra argazkilariak tropelean joaten dira eta paparazziak direla dirudi. Irak,

Andoni Berriotxo bere kamerarekin.



Afganistan eta Haitin hildakoen argazkiak besterik ez dituzte ateratzen. Munduan beste tokirik ez dagoela dirudi. Aipatutako toki horietara joatea oso garestia da, denek bertara joan nahi baitute. Enpresa baten babesik ez baduzu ezin zara bertara joan. *Reuters* agentziakoak helikopteroan iritsi ziren Birmaniara: Gurutze Gorrikoei erditik kentzeko esan zieten, jendeari posatzeko eskatu zioten...

Nola lortzen du Urretxuko gazte batek Birmaniako iraultzaile batengana heltzea?

Horretarako behar den informazioa ez da Interneten ageri eta beste argazkilari bati kontaktuak eskatuko banizkio babak eltzetik nik neuk ateratzeko esango lidake. Tailandian hiru aste kosta zitzaidan nahi nuen tokira heltzea.

Zein da zure hurrengo helburua?

Sahararen independentzia aldarrikape-

naren 35. urteurrenaren ospakizunak jarraitu behar ditut. Gainera, gerra berpiztu behar dela dirudi eta bertan egon nahi dut hori gertatzen denean.

Eta ondoren?

Munduko toki asko iruditzen zaizkit interesgarriak. Kolonbia eta Venezuela, esaterako. Gervasio Sanchezek desagertuei buruzko lan oso interesgarria egin du: Alvaro Uribe milaka pertona desagerrarazi ditu gerrillariak edo terroristak ziren aitzakiarekin. Sanchezek bakarrik hitz egin du gai horri buruz orain arte. Gai oso interesgarria iruditzen zait eta gainera apenas ukitu da. Venezuelako indarkeria ere jorratu nahi dut. Iaz bakarrik 20.000 hilketa izan ziren. Mexiko eta Kaukaso ere interesatzen zaizkit, Tailandiako erregea gaixo dago eta bera da herrialdeari egonkortasuna ematen diona, Birmanian lehenengoz gerrilla guztiak elkartu dira... Bestalde, gu ezin gara helburu bakar batekin joan. Hori *Reuterse*koek egin dezakete, lan zikin guztia egiten dietelako eta eurek argazkiak atera beste zereginik ez dutelako. Gure kabuz goazenok, berriz, gai bat baino gehiago dugu buruan itxuiten gauden bitartean denbora ez galtzeko. Gai nagusirako kontaktuak lortzen ari garen bitartean gure stockerako argazkiak ateratzen ditugu.

Zein da lan honen alderik gogorrena?

Bizi baldintza oso gogorrak jasan behar ditugu, baina hori nahi dugulako egiten dugu. Gogorrena mundu guztiak lan ona egin duzula aitortzea, baina argazkiak inork ez erostea da. Lan hau gustuko dugulako egiten dugu, aberastea ezinezkoa baita.

Txema Iriberry: Xakea modan jarri duen herritarra

Apirilaren 17an Eire-Bankoa xake txapelketako finala jokatuko da. Torneo hau inguruotan antolatzen den garrantzitsuena da eta urtero jokalar askok parte hartzen dute. Txema Iriberry Eire tabernako nagusia da antolatzailea. Urretxuar hau umetan zaletu zen eta pasioz hitz egiten du xakeaz.

Txema Iriberry bere tabernan.



Nolatan zaletu zinen?

Umetan jaso nuen xake taula sekula egin didaten oparirik onena da. Liburu arrunt baten laguntzaz ikasi nuen jokatzen eta institutu garaian maila txukuna lortu nuen.

Zure lehiakideetako bat Josu Jon Imaz izan zen.

La Salle-Legazpi ikastetxeak antolatutako txapelketa batean jokatu nuen bere aurka. Oso ona zen eta erraz irabazi ninduen.

Ordutik, nola garatu duzu zure zaletasuna?

Garai batean joko honekin lotutako zigiluak bildu nituen eta gaiari buruzko hainbat ipuin ere idatzi ditut. 18 urte nituenean horietako batekin Zumarragako literatur lehiaketako bigarren saria eskuratu nuen. Istorio hura publikatu egin zen. Xakean jokatzen zuen tabernari bati buruzkoa zen.

Azkenean nire pertsonaiaren pare bukatu dut.

Tren geltokiko tabernan hasi zinen lanean.

Eire-Bankoa txapelketan parte hartzen dutenetako batzuk hara joaten ziren eta lanik ez nuenean eurekin jokatzeko nuen. Gauetan tabernan gelditzen nintzen, bezeroren batekin edo Renfeko langileekin jokatzeko.

Zure taberna ireki zenuenean zaletasuna nahi bezala garatu ahal izan zenuen.

Tauladun mahaiak jarri nituen nik neuk jokatzeko eta bezeroak tentatzeko. Xakearekin lotutako apaingarriak ere badaude. Ondoren txapelketa antolatzea bururatu zitzaidan. Lehen edizioa Gaspar Gezalagarekin antolatu nuen. Ez nuen uste halako arrakasta izango zuenik. Gero eta jokalarik hobeek parte hartzen dute eta gero eta urrutiagotik etortzen dira. Ehunka partida jokatu dira dagoeneko.

Torneoa asko hazi da.

Lan handia ematen dit, baina zaletasun handia dut eta horri esker ateratzen da aurrera. Txirrindulari lasterketa bat ezin-go nuke antolatu, adibidez, ez baitut zaletasunik. Hau, ordea, gustura egiten dut. Gainera, tabernarentzat ona da. Gipuzkoa mailan jende asko ezagutu dut eta federazioak Eire-Bankoa txapelketa aipatzen du bere web orrian eta interes berezikoa dela dio.

Zergatik uste duzu izan duela halako arrakasta?

Nire ustez gakoa malgutasuna da. Ligako partidak larunbat arratsaldeetan jokatzeko dira eta gazteek nahiago dute beste zer edo zer egin. Gure partidak,

berriz, lehiakideek adostutako egunean eta orduan jokatzeko dira. Xake federazioaren eta Mikel Zubia kazetariaren babesa ere garrantzitsuak izan dira. Zubiak lehiaketan parte hartzen du eta komunikabideetan iragartzen du. Ponomariov txapelketan handia etorri zenean sekulako oihartzuna izan zuen.

“Ponomariovek Eiren

jokatu zituen partidak

mundu mailan ezagunak

diren argitalpenetan

aztertu dira”

Munduko txapelketan bat hemen izatea sekulakoa izan zen. Begiak itxita jokatu zuen zortzi lagun bakoitzarekin, bere bizitzan lehenengoz. Partida haiek mundu mailan ezagunak diren argitalpenetan aztertu dira.

Eire-Bankoa txapelketaren inguruan halako ekitaldi bereziak antolatzen dituzu. Zer duzu buruan hurrengo urteetarako?

Urretxuko jaien ondoren etxea erre zitzaigun eta dagoeneko sei hilabete daramatzagu etxetik kanpo. Hori dela eta, aurrean ez dut ur handitan sartzeko gogorik izan. Hurrengo urteetarako badituzte egitasmoak, baina hobe da ezer ez aurreratzea. Izan ere, azken unera arte ez dago jakiterik aurrera aterako diren. Arrakastatik porrotera dagoen tartea oso txikia da. Ponomariov ziklogene-si egunean etorri zen!

Txapelketa antolatzeko laguntzarik ba al duzu?

Lagunen laguntza eskertu nahi dut. Behin baino gehiagotan neure burua txapelketa antolatzeko indarririk gabe ikusi dut eta eurak izan dira ekimena aurrera ateratu dutenak. Ketxus Amenabar, Jesus Mari Rodriguez, Pedro Castro eta Goierri eta Santikutz xake taldeez ari naiz, besteak beste. Pedrok, adibidez, Euskal Herriko lehen xake programa prestatu zuen eta Eiren aurkeztu zuen.

Zein da zaletasun honengatik egin duzun erokeria handiena?

Duela urte asko Andorrara joan nintzen lehen xake makina erostera. Horretara joan nintzen espresuki, han aipatutako makina hemen baino askoz ere merkeagoa baitzen.

Inguru honetan xake zaletu asko al dago?

Taberna dezentetan taulak dituzte, Legazpin xake taldea dute... Eskualdean gero eta zaletasun handiagoa dago eta eta jendeak lehen baino gehiago trebatzen du bere burua. Gure torneoa, adibidez, dagoeneko ez da jokalarik kaxkarrik izaten.

Zer moduz doa aurtengo txapelketa?

Ondo. Azpimarragarriena Unai Elias mutikoaren partaidetza izan da. Ez nengoen berak parte hartzearen alde, hau ez baita ludoteka. Hori dela eta, berarekin jokatu nuen erabakia hartu aurretik: partidaren bat irabazteko gai izango zela konturatu nintzen. Bestalde, Legazpiko taldekoak maila oso ona ematen ari dira. Askok entrenatzen dutela nabari da. Finala apirilaren 17an jokatuko da.

Unai Elias: “Hasieran galtzen banuen ez zela ezer gertatzen esaten zidaten, baina dagoeneko hori esateari utzi diote”

Unai Elias Eire tabernan.



Haur prodijioek toki garrantzitsua dute xakearen historian, maisu handiek porrot mingarriak pairatu baitituzte euren aurka. Urretxuk badu berea, maila apalagoan noski. Unai Elias du izena. 11 urte bakarrik ditu, Eire-Bankoan parte hartu duen haur bakarra da eta zaletu eta jokalarari guztiak txundituta utzi ditu.

Unai bere aita Iñigoren eta bere anaia Julenen eskutik zaletu zen. Elkarrekin jokatzen ikusi zituen eta aitari berari ere irakasteko eskatu zion. Ikasleak maisua gainditu du. Egun Jon Alvarez da bere irakaslea. 2009an parte hartu zuen lehenengoz lehiaketa batean, Legazpiko Santikutz xake taldeak jai-


tan antolatzen duena, eta irabazi egin zuen noski. Legazpiarrek Gipuzkoako txapelketan eurekin jokatzea proposatu zioten.

Baina horrekin eta haurrentzako lehiaketak irabaztearekin ez du nahikoa. Ikasteko gogo bizia du eta bere gurasoei inguruotan antolatzen den txapelketa nagusian parte hartzea eskatu zion: Eire-Bankoa delakoan, alegia. Bere ama Txema Iriberrri antolatzailarekin harremanetan jarri zen eta honek ez zuen batere argi ikusi, ordu-ra arte helduek bakarrik parte hartzen baitzuten. Unairekin partida bat jokatzea erabaki zuen bere maila ezagutzeko eta harrিতa gelditu zen.

Parte hartzeko baimena eman zion eta Urretxuko haurrak zaletu guztiak zur eta lur utzi ditu. “Hasieran galtzen banuen ez zela ezer gertatzen esaten zidaten”, aipatu du. Txapelketak aurrera egin ahala helduak izan dira laguntza psikologikoa behar izan dutenak. Izan ere, partida bat baino gehiago irabazi du eta bigarren fasera sailkatzeko zorian izan da. “Nire lehiakideetako batek irabazteko gutxi eta galtzeko asko zuela esan zidan: galtzen bazuen haur baten aurka galtzeagatik iseka egingo zioten eta irabazten bazuen, berriz, ez zioten meriturik onartuko”.

Eliasek helduen aurka jokatzean ez dela urduri jartzen dio eta Iriberrri Urretxuko gaztetxo “lotsagabe eta erasokor” aritu dela azaldu du. Are gehiago, haurraren jokaldi batzuek beteranoen harridura piztu dute. Esan bezala, partida batzuk irabazi dituen arren, ez du kanporaketetara sailkatzea lortu. Dena den, garaipen handia lortu du: bere lan onari esker hemendik aurrera haurren txapelketako finalistek Eire-Bankoa torneoan parte hartzeko eskubidea izango dute.

Xakean jokatzeaz gain, Unai Elias Lehen Hezkuntzako 6. maila ikasten ari da Ginzuri ikastetxean. Xake jokalarari ona izanik, matematika atsegin du eta nota oso onak ateratzen ditu. Topikoak haustea ere lortu du: soin heziketa eskola atsegin du eta saskibaloari jokalarari bikaina da. Goierri taldean base postuan jokatzen du eta Gipuzkoako selekzioan jokatzeko hautatu dute ia.



Alex Areizaga

Informatika

'Ubuntu' (edo "agur 'Windows'!")

Erabili ohi ditugun ordenagailu guztiek *Windows* maltzurra edota *Mac* ederra dakarte sistema operatibo gisa. Honek gastu ekonomiko garrantzitsu bat suposatzen du, beti ere, 100 eurotik gorakoa. Krisi garaiotan ona da beste sistema bat erabili dezakegula jakitea; fidagarria... eta doakoa. *Ubuntu* sistemaz ari gara hizketan, oinarri gisa *Linux* erabiltzen duena. Doako aplikazio batzuk biltzen ditu gainera: posta, nabigatzailea, ofimatika, diseinua, bideo edizioa, soinua... Hauek geroz eta errazagoak dira erabiltzen eta kode irekiko garrantzia dute, hau da, erabiltzaileak programaren tripetara sar daitezke eta euren gustura aldatu. *Ubuntu* sistema probatu nahi badugu instalatu ere ez dugu egin behar. *Desktop CD-DVD* bertsioak egon ohi dira, ordenagailua diskora sartuta duela arrankatzean abiarazten direnak. Ordenagailua itzali eta diskora ateratzean gure betiko arazoz beteriko *Windows*a izango dugu eskuara. Ezjakinari laguntzeko webgune pila bat daude, esaterako <http://www.ubuntu-es.org/>. Gainera, euskaraz instalatu daiteke! Zer gehiago nahi duzu ba? esan gurekin batera: "agur windows!".



Oihane Sudupe

Osasuna

Gastu energetikoa

Gaur egungo bizimoduak gehiegizko pisua jasatera bultzatzen gaitu, lan fisikoa gutxienera murriztu baitugu. Mende batean behar izan energetikoak 500 eta 1.000 kaloriatan gutxitu dira. Janari kantitatea, ordea, ez da proportzio berean murriztu. Honegatik guztiagatik, pisu egokian mantentzeko ezinbestekoa da aktibitate fisikoa gehitzea. Ariketa fisikoak gastu kalorikoa eta metabolismoa arazotzen du eta adinarekin gutxiagotzen den hezur-masa galtzea ekiditen du. Gomendagarrienak ariketa aerobikoak dira. Izan ere, ariketa hasi eta 20 minutu igaro arte ez baita gantzetan eragiten. Astean lautan igeri egiteak edota ibiltzeak osasunarentzat arriskurik gabe pisua galtzen lagun diezaguke, baita urteetan zehar gure pisu egokia mantentzen ere.

1994

Zintzo-Mintzo euskaltzale elkartearen lehen pausoak

1994ko urtarrilean Zintzo-Mintzo elkarteak bi herriotako udalekin eta elkarteekin euskararen erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatu zuen. Ezkerretik eskuinera: Amaia Aranburu (Kimets-Goiargi abesbatzako kidea eta sinatzaileetako bat), Jose Julian Irizar Zumarragako alkatea, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Ramon Arbizu Urretxuko alkatea, Pello Biain Zintzo-Mintzoko lehendakaria eta Joxe Mari Etxaniz aurkezlea.



Alex Albisua

Alex Albisua zumarragarrik 39 urte ditu. Ikastolan ikasi zuen eta ondoren lizeora joan zen. Legazpiko institutuan bukatu zituen ikasketak. Orduetik gurasoek irekitako Alex Kirolak dendan lan egin du. Gustuko lana du. "Ez da lan txarra. Gainontzeko guztiek bezala, alde onak eta txarrak ditu. Orduetegi aldetik lotua da eta tailer batean lan egiteak baino buruhauste handiagoak ematen ditu. Bestalde, opor egun gutxiago ditugu. Dena den, pozik nago. Lokala azkenekoz berritu genuenetik lan eremua lehen baino erosoagoa da".

Zer izan nahi zenuen umetan?

Medikua. Osaba medikua nuelako batik bat.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Korrika egitea eta mendira joatea.

Bizitzeko toki bat?

Zumarraga da ezagutzen dudana. Ametsetan hasiz gero edo nora joango nintzateke, baina hemen ondo nago.

Gustuko kirola?

Kirol ia guztiak gustatzen zaizkit: palan aritua naiz; eskiatzen ere bai; Urolan jokatu nuen; saskibaloia, tenisa eta txirindularitza ikustea gustatzen zait...

Gustuko kirolaria?

Felix Iñurrategi estima handian nuen. Pena handia hartu nuen.

Kirol arropa kontuan berezia al zara?

Ez, baina azkenaldian arropa gehiago hartzen dut dendatik. Dena den, ez dut kirol arropa bakarrik erabiltzen.

Asko aldatu al dira erosleak?

Praka kontuan aldaketa nabarmena nabari dut: lehen algodoizkoak erabiltzen ziren eta orain mendikoak.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Erregetakoak.

Eta jasotakoa?

Argazki kamera bat.

Data bat?

Santa Isabel eguna.



Mutil eta neska izen bana?

Ez daude bereziki gustatzen zaizkidan bi.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Berria.

Gustuko telebista saioa?

Pelikulak. Ez dut bereziki gustatzen zaidan telebista saiorik eta katez aldatzen aritzen naiz. Egia esan, telebistan ez dago merezi duen gauza asko.

Bereziki gorroto duzuna?

Intereconomía kateko tertuliak, adibidez. Tertulia batzuk jasan-gaitzak dira.

Pelikula bat?

Blade runner, *El silencio de los corderos* eta *El nombre de la rosa*.

Liburu bat?

Oso gutxi irakurtzen dut.

Abesti bat?

Ez dut bereziki gustatzen zaidan abestirik. Buruan dudana azkena Mercedes Sosaren *Gracias a la vida* da.

Soinu bat?

Haizearena.

Usain bat?

Ogi egin berriarena.

Janari bat?

Denetik jaten dut. Ez dago bereziki gustatzen zaidan janaririk: haragia, arraina, ondo egindako makailoa, berdura...

Ura ala...

Ura eta noizbehinka sagardoa.

Abertzaletasunetik eta ezkerretik
munduari irekiak.
Ezker abertzalea sendotzen eta
XXI. mendeko
ezker zibil eta zabala eraikitzen.

IREKI BIDEA

EZKERRARI


aralar



construcciones
mendiola

Labeaga, 7 URRETXU

Tf. 943 72 05 11

Fax: 943 72 44 10

E-mail: mendiola@cmendiola.com

www.cmendiola.com

Etxebizitzen
Eraikuntza

Industria
Pabilioiak

Urbanizazio
Lanak

